GALDERA OHIKOENAK

ZER DA ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILAREN ESTATISTIKARAKO ORGANO BEREZIA?
Estatistikarako Organo Berezia Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren estatistika-zerbitzu propioa da, eta Eustatek eta gainerako Estatistika Organo Bereziek osatzen duten Euskal Estatistika Antolakundeko kide da. Beren eskumen-eremuan gizartearen eta euskal ekonomiaren funtsezko alderdiei buruzko estatistika-informazio ofiziala bildu, aztertu eta zabaldu egiten du.

GURE UDALEAN EGINGO DUTEN INKESTA ZERI BURUZKOA DA?
Eraikuntza eta Etxebizitza Estatistikak hainbat helburu ditu: udal-etxebizitza tasatuen eta alokairukoen bilakaera eta kopurua ezagutzea, eta babestutako etxebizitzak eraikitzeko dagoen lurzoruari eta eraikitakoari buruzko jarraipena egitea.

NORI EGINGO ZAIO INKESTA?
Euskadiko Autonomia Erkidegoa osatzen duten hiru lurralde historikoetako 251 udalei.

NAHITAEZKOA AL DA GURE UDALAK PARTE HARTZEA?
Bai. Euskadiko Autonomia Erkidegoko Estatistikaren Legeak 10. artikuluan xedatzen duenez, denok eman beharko dugu, nahitaez, Estatistikarako Organo Bereziak eskatutako informazioa, eta bereziki udalek erakunde publikoak diren aldetik.

KONFIDENTZIALA IZANGO AL DA EMANDAKO INFORMAZIOA?
Bai, Estatistikarako Organo Bereziak jasotako informazioa guztiz isilpekoa da eta estatistika sekretuak babesten du, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikaren Legeak 19.etik 23.era bitarteko artikuluetan ezarritakoaren arabera.

NOLA EGINGO DIDATE INKESTA?
Gutuna igorriko da udaletxera, bete behar den galdera-sortarekin batera. Galderak erantzun eta gero bertan zehaztutako helbidera itzuliko da. Hala badagokio, inkestatzaile batek bisitatuko zaitu eskatutako informazioa jasotzeko eta sor daitekeen edozein zalantza argitzen lagunduko dizu.

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILAREN ESTATISTIKA ORGANO BEREZIAK ZABALDUTAKO INFORMAZIOA NORK ERABILIKO DU ETA ZERTARAKO?
Administrazioak berak erabiliko du informazioa modu erantsian etxebizitzari buruzko politikak diseinatzeko. Unibertsitateek eta bestelako ikerketa-zentroek ere erabiliko dute, baita, higiezinen merkatuan interesa duen orok ere.

NON AURKI DITZAKET INKESTAREN EMAITZAK?
Inkestaren emaitzak modu numerikoan zabalduko dira- taulak- eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako web orrian urteko txosten baten bidez.

http://www.gizaetxe.ejgv.euskadi.net/r40-19497/es/

NON ESKA DEZAKET INKESTARI BURUZKO INFORMAZIO GEHIAGO?

Telefonoan: **945 016426**
edo honako posta elektronikoan**: vivas-estad@ej-gv.es**